

ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA FABRIKAZIO MEKANIKO ETA SOLDADURA ARLOAN

PROIEKTUAREN HELBURUA

Eibarko langabetuen laneratzeko gaitasuna hobetzea:

- Formakuntza: Gaitasun pertsonalak.
- Formakuntza: (MF0091) Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa.
- Formakuntza: Elektrodo estali bidezko soldadura.
- Formakuntza: Eskorga jasotzaileak gidatzea.
- Praktiak enpresan.
- Laneratze-prozesuan laguntza.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Eibarren erroldatua egotea.
- Langabezia-egoeran egon eta Lanbiden izena emanda egotea.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Positiboki baloratuko da Fabrikazio Mekaniko nahiz Soldadura arloan esperientzia profesionala edota ezagutzak izatea.

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2022ko otsailaren 14tik martxoaren 1era arte (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua).
- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- a) “Enplegua sustatzeko programa Fabrikazio Mekaniko eta Soldadura arloan” programan parte-hartzeko eskaera behar bezala beteta. PEGORAn eta www.eibar.eus udal webgunean dago orria eskura.
- a) Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- b) LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- c) Curriculum vitae eguneratua.
- d) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
1. FORMAKUNTZA.
 - a. Konpetentzia espezifikoak; Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan (MF0091) (210 ordu).
 - b. Garapen pertsonaleko konpetentziak (16 ordu).
 - c. Konpetentzia espezifikoak; Eskorga jasotzaileak gidatzea (30 ordu).
 - d. Konpetentzia espezifikoak; Elektrodo estali bidezko soldadura (60 ordu).
2. PRAKTIKAK ENPRESAN (gutxienez 60 ordu).
4. LANERATZE-PROZESUAN LAGUNTZA.